

Euskal Herriak eredu propioa eskubide sozial eta laboral duinak

Egin dugun bideak bere emaitzak izan ditu

Krisialdiaren hasieratik Euskal Herriak erantzun egin du. Eraso ezberdinei erantzun izan diegu, greba orokorak tarteko, baina garrantzitsuena, egunez egun, enpresa, sektore eta herriean.

Iruñea zein Gasteizeko gobernuek badakite Euskal Herrian ez daukatela bidea zabalik, hemen nahiko lituzketen murrizketa eta pribatizazio guztiak ezin dituztela burutu. Nafarroako gobernua bere ustelkerian itota eta ahulezia sakonean dago sartuta. Gasteizeko gobernuak 1.200 miloiko murrizketak egin nahi zituen euren aurrekontuetan eta atzera bota behar izan ditu. **Herritarrengandik gero eta urrunago eta gero eta sinesgarritasun gutxiagoz, herri presioaz krisi instituzional sakonetan daude sartuta.**

Patronalak ere uste zuen Madrilen oparitutako lan erreformarekin bidea zabal-zabalik edukiko zuela. Hala ere, aurre egin diogu eta enpresa zein sektoreetan burutzen ari garen borrokak bere emaitzak izan ditu: gure hitzarmenak erreformaren aurrean blindatzten ari gara. Greba honek borroka horretan ere lagundu behar du. Beste eredu bat eraiki nahi dugu, baina **beste eredu sozial eta laboral bat ez da posible ez badaukagu negoziazio kolektiboa bezalako tresnarik, eta ez dago beste eredurik ez badaukagu lan eskubiderik.**

Emerjentzia egoerak beste erantzun indartsu bat ematera behartzen gaitu

Langabezia maila jasanezina da, gero eta lagun gehiagok ez dute inolako prestaziorik jasotzen; pribatizazio politiketan jarraitzen dute, bai Madriletik bai Iruñea eta Gasteiztik; **euskal langileria pobretzeko estrategia martxan daukate eta soldatik, pentsioak eta babes soziala jo puntuantza daude.**

Madriletik eraso gogorrak datozen, eta hemengo gobernuek, herriak aldarrikatzen duenari uko eta kapitalari men egiten diote. Beharturik daudela esaten dute batzuetan, baina besteetan, datorren pentsio erreforman bezala, **euren babes osoa eskaintzen dute bai UPNk bai PNVk.**

Politika horiek gutxi batzuk are gehiago aberastea daukate helburu eta emergentzia egoera honetara ekarri gaituzte: ez da krisiaren emaitza, baizik eta krisiaren aitzakiaz aplikatzen ari diren politiken ondorio zuzena. **Hondamendira garamatzate eta, gainera, badakite. Euskal Herriko gobernuak lehentasunak aldatzera behartu behar ditugu:** banka eta multinazional handiak –eta, Nafarroan eskandaluzkoa denez, norberaren probetxu pertsonala- izatetik euskal gehiengo langilea izatera.

Erantzun hutsetik haratago

Gure esku dagoen erantzunik gogorrena eman behar dugu eta hori greba orokorra da. Erantzunak emaitzak izaten ditu, baina ez da nahikoa, horregatik plan oso bat abiarazi behar dugu, plan oso bat indarrak biltzeko, jendartea batzeko eta aktibatzeko eta Euskal Herrirako alternatiba denon artean eraikitzen hasteko.

Ez dugu aurreko sasoietara bueltatu nahi, horrek ere ez zigun balio. Benetako aldaketa soziala ezinbestekoa daukagu Euskal Herrian eta denon artean erabaki eta finkatu behar dugu zertan oinarritu behar den aldaketa hori. **Langile klasearentzat hondamendia baino ez dakarren Madrilera begiratzeari utzi eta euskal jendartea hartzen dituen erabakietan oinarritu behar den alternatiba.**

Prozesu sozial indartsua dago martxan eta indartuko dugu. Lehen pausua Euskal Herrirako gutun sozialaren osaketa izango da, Euskal Herriko eredu denon artean erabakitzeko. **Eta greba honek, erantzuna, desobedientzia eta konpromisoa erakusteko ez ezik, prozesu sozial honi bultzada erabakigarria emateko balioko digu.**

maiatzak 30
GREBAOROKORRA



Por un modelo propio en Euskal Herria derechos sociales y laborales dignos

La lucha sí ha dado sus frutos

Desde el comienzo de la crisis Euskal Herria ha venido contestando. Hemos respondido a la serie de ataques que se nos vienen imponiendo, incluso con varias huelgas generales, y lo más importante, día a día, en empresas, en sectores y en la calle.

Los gobiernos de Iruña y de Gasteiz saben que en Euskal Herria no pueden hacer ni todos los recortes ni todas las privatizaciones que se les antojen. El gobierno de Nafarroa, ahogado en su propia corrupción y en la soledad más absoluta; el de Gasteiz que ha tenido que retirar sus presupuestos que recortaban 1.200 millones de euros. **A causa de su ruptura absoluta con la sociedad y de su falta de credibilidad son gobiernos en crisis. Y esto es fruto, también, de la presión ejercida por la sociedad.**

También la patronal se las prometía muy felices con la reforma laboral que le regalaron en Madrid. Y, sin embargo, la lucha que estamos llevando a cabo en empresas y sectores ha dado sus frutos: estamos blindando nuestros convenios ante esa reforma laboral. Esta huelga tiene que servir para dar un impulso también a esa lucha. **Queremos construir otro modelo, pero otro modelo social y laboral es imposible sin instrumentos como la negociación colectiva, y no hay modelo posible sin derechos laborales.**

La situación de emergencia social nos obliga a dar una respuesta contundente

Los niveles de desempleo son insostenibles e inaceptables, y cada vez más gente no recibe ningún tipo de prestación; continúan en sus políticas de privatizaciones, tanto desde Madrid, como desde Iruña y Gasteiz; **es toda una estrategia de empobrecimiento, con los salarios, las pensiones y la protección social en el punto de mira.**

Ante todos los ataques que llegan de Madrid, hacen caso omiso a lo que reclama la sociedad de Euskal Herria y se alinean con el capital. Dicen, a veces, que están obligados a ello, pero otras muchas, como en la próxima reforma de las pensiones, **tanto UPN como PNV dan su pleno apoyo.**

Todas esas políticas tienen como objetivo enriquecer aún más a unos pocos y son las que nos han traído a esta situación de emergencia: no es fruto de la crisis, sino consecuencia directa de las políticas que se están aplicando con excusa de la crisis. Nos están llevando a la ruina y lo saben. **Tenemos que obligar a que cambien las prioridades de los gobiernos de Euskal Herria:** de los intereses de la banca y las grandes multinacionales –o el provecho personal, como en el caso escandaloso de UPN- a la mayoría social trabajadora.

Más que una respuesta

Debemos dar la respuesta más contundente que esté en nuestra mano y ésa es la huelga general. Hemos respondido hasta el momento y ha tenido sus frutos, pero no es suficiente. Por eso, debemos poner en marcha todo un plan, **un plan para aunar fuerzas, para unir y activar a toda la sociedad y para construir la alternativa entre todas y todos.**

No queremos volver a tiempos pasados. Necesitamos un verdadero cambio social en Euskal Herria y entre todas y todos tenemos que decidir en qué debe basarse ese cambio. **Necesitamos una alternativa que deje de mirar al desastre al que nos aboca Madrid y que se base en las decisiones que tomemos aquí la mayoría social trabajadora de nuestro pueblo.**

Va a ser un proceso social que dé la vuelta a la situación y como primer paso vamos a, entre todas y todos, conformar la carta social de Euskal Herria. **Y esta huelga, además de ser una respuesta rotunda y un acto de desobediencia y compromiso, será un impulso decisivo a este proceso social.**

30
HUELGA mayo
GENERAL

